
Bake Konferentzia

Etorkizuneko eszenetagian inguruko
Gizarte eztabaidaren proiektua

Elkarri

2004ko ekainaren 3a

Aurkibidea

Aurkezpena

Lehen zatia: gizarte eztabaidaren oinarrizko txostena

0. Sarrera

1. Konponbide-garaiak eskatzen duen egitura

- 1.1. Konponbide garaiaren definizioa eta helburuak
- 1.2. Konponbide-garaiari legozkiokeen prozesuak

2. Konponbide-garaiak eskatzen duen metodologia

- 2.1. Distentsio-prozesua (edo baketze-prozesua)
- 2.2. Adiskidetze-prozesua (edo bizikidetasunerako akordio politikoaren prozesua)
- 2.3. Ordaintza-prozesua (edo humanizazio-prozesua)
- 2.4. Prebentzio-prozesua (edo bake-kultura prozesua)
- 2.5. Beste prozesu batzuk

3. Konponbide-garai baten egituraren eta metodologiaren koadro-laburpena

Bigarren zatia: etorkizuneko eszenategien inguruko gizarte eztabaidaren metodologia

0. Aurkezpena

1. Etorkizuneko eszenategien inguruko ikerketa mintegia

2. Herrietako Parte-hartze Taldeak

3. Parte-hartze Koadernoak

Aurkezpena

Aukera-garaia. Hona hemen gaur egungo egoerako faktoreetako batzuk: Euskadin eta Katalunian abiarazitako eztabaidak, Espainiako gobernu-aldaketa, elkarrizketarako jarrera orokorra, edo alderdien arteko mahaia osatzeko deialdia. Faktore horiek guztiek adierazten digutenez, arazo politikoak konpontzeko aukera-garaian gaude, gure gizarteak pairatzen dituen bizikidetasun eta indarkeria arazoak gainditzeko garaian. Egungo egoerari aldaketa-kutsu hori ematen dion faktore erabakigarriena zein den adierazterakoan ezin dugu ados jarri, sektore politiko bakoitzak arrazoi hau ala bestea azpimarratzen baitu. Izan bada, hala ere, adostasun orokor bat: abagune historiko batean gaude. Ez da abiapuntu txarra, denok uste baitugu aukera horri ez zaiola bizkarra eman behar, ezin dela alferrik pasatzen utzi.

Zailtasun-garaia. Aurrekoa bezalaxe, onartu beharra dago beste hau ere: zailtasun-garaian gaude. Lehenbizi identifikatu eta ondoren gainditu egin behar dira zailtasun horiek. Elkarriren iritziz, lau dira egoera honetako arrisku aipagarrienak: ETaren indarkeria, ezker abertzalearen baztertzea, joko-arauei buruzko konpromisorik eza eta, azkenik, konponbide-garai honek eskatzen duen metodologia bateraturik eza. Alderantziz adierazita, itxaropen-garai hauek konponbide-garai bihurtzeko giltzarriak ere lau dira: indarkeriarik eza, inor ez baztertzea, konpromisoa eta metodoa.

Konpromiso-garaia. Aukeraz eta zailtasunez betetako egoera batean beharrezkoa da itxaropen-garai hau konponbide errealean garai batean bilakatzen lagunduko duten konpromisoak nor bere gain hartzea. Beharrezkoa da indarkeriarik eza eta giza eskubideen, pluralismoa eta bazterketarik ezaren, eta elkarrizketa eta akordioaren aldeko baldintzak sortzeko konpromisoa onartzea.

Elkarrik ahal duen neurrian baldintza hauek sortzen lagundu nahi du. Ekainaren 17an eraman ditugu Eusko Legebiltzarrerara eta Nafarroako Parlamentura bildutako 122.000tik gora sinadurak, Eskaera Eskubidea erabiltzeko eta elkarrizketa mahai alderdianitz baterako proposamena aurkezteko, 2003ko urritik 2004ko martxora bitartean bildutakoak alegia. Sinaduren aurkezpenak Bake Konferentziaren fase berri baten hasierarekin bat egingo du, elkarrizketa hiru mailekin:

- nazioartean, nazioarteko mintegi bat antolatuko dugu udazkenean gaztazken kudeaketan adituak direnen iritzia ezagutzeko.
- eremu politikoan, Elkarri elkarrizketa foro anitzak sortzeko dauden aukerak aztertzen ari da alderdi politikoekin.
- herri mailan, bi ekimen jarriko dira martxan: "etorkizuneko eszenategiak ikertzeko mintegia" izeneko esperientzia berria jarriko dugu martxan non eremu desberdinetako ordezkariak gonbidatuko ditugun parte hartzera, eta "Herrietako Parte-hartze Taldeak" non 100tik gora herrietan elkarrizketa esperientziak jarriko dira martxan. Horrekin batera, 200.000tik gora parte-hartze koaderno banatuko dira.

Dokumentu honetan etorkizuneko eszenategien inguruko gizarte eztabaida honetan parte hartzeko oinarritzko txosten bat eta metodologia bat eskaintzen dizuegu. Hain zuzen ere, ondoren, eta dokumentu honetan bi atal hauek aurki ditzakezu. Elkarriren nahia litzateke martxan jarriko dugun prozesu honetan guztian gizarteak parte hartzeko bide desberdinak eskaintzea. Parte hartu ahal izateko edo ekimenaren inguruko informazio gehiago jasotzeko telefonoz deituz (902 42 10 10) edo e-mail bat bidali (elkarri@elkarri.org).

Lehen zatia. Gizarte eztabaidaren oinarritzko txostena

0. Sarrera

Konponbide-garai hauek eskatzen duten egiturari eta metodologiari buruzko hasierako kartografia dakar txosten honek. Txosten honen helburua da hasierako orientazio orokorra ematea, konponbide-garai honetarako lerro nagusiak ordenatzen eta, batez ere, iraganean egindako hainbat akats berriro ez egiten lagunduko diguna.

Ez da mapa itxia; zirriborro irekia da, amaitu gabea. Mapa honek etorkizuneko eszenategien inguruko gizarte eztabaidari osotasuna eman nahi dio, egitura logiko minimoa emateko, martxan jarriko diren ekimen guztien ondorio bateratuak atera ahal izan daitezen.

Lau ezaugarri nagusi ditu, eta komeni da lauak azpimarratzea kartografia ongi kokatu eta ulertzeko:

- Mapa polibalentea da. Hau da, ikuspegi guztientzat baliagarri izan nahi du, horietako bakar bat ere erabat ase ezin duen arren. Izan ere, inork ere ez du espero behar ehuneko ehun asebeteko duenik konponbideak, edozein delarik ere.
- Bigarrenik, helmuga garbia du mapak. Hamabi urte daramatza Elkarrik indar politikoekin harremanetan, elkarriketa bakea helburu dituela. Eskarmentu hori oinarri harturik, hona hemen maparen helmuga: alde guztiek onartzeko moduko konponbiderantz garamatzen guztia.
- Hirugarrenik, ez da mapa perfektua, ezinbestean. Ez da mapa fisiko bat, jokabide sozial eta politiko onargarrien mapa baizik. Beraz, giza izaera bezainbat inperfektua eta kontraesankorra da. Hona horren adibide bat: ezberdinak izango dira hemen iradokitzen ditugun egitura eta metodologia indarkeria amaitzen ala bere horretan jarraitzen duen, edo elkarriketa alde askotarikoa den ala partziala eta mugatua.
- Azkenik, ez da konponbide-mapa. Hobeto orientatzeko tresna izan nahi du mapa honek; baina mapek ez dituzte gaindiarazten bidean dauden oztopoak, ezta eguraldi txarrari aurre egiten ere, horiek guztiak saihesteko lagungarri izaten badira ere.

1. Konponbide-garaiak eskatzen duen egitura

1.1. Konponbide-garaiaren definizioa eta helburuak

Zeri deritzogun konponbide-garaia? Helburuei begira diezaiegun. Hainbat arazo konpontzeko beharrezko diren helburuak lortzeko baliagarri zaiguna, hori litzateke konponbide-garaia. Bi erreferentzia izan ditugu kontuan helburuak identifikatzeko: lehenbizikoa, herritar gehienek erraz bereganatzeko moduko helburuak behar dute izan; bigarrena, ahalik eta ikuspegi politiko gehien biltzen dituen formulazioa bilatu behar da. Hori guztia kontuan harturik, konponbide-garaia da –gure ustez– garai jakin batean helburu jakin batzuk gauzatzeko baliagarri zaizkigun prozesu-multzoa. Hona hemen helburuak:

- a) Arrazoi politikoek eragindako indarkeria-mota guztiak behin betiko amaiaraztea, eta giza eskubideak errespetatzea.

b) Gizalegezko bizikidetasunerako behar diren adostasun politikoak lortzea, hots, bakean, askatasunean, berdintasun demokratikoan eta pluralismoa errespetatuz bizitzeko behar diren adostasunak.

c) Indarkeriak eragindako kalteak eta sufrimenduak konpontzea eta haien ordaina ematea kaltetuei, ahal den neurrian.

d) Bitartekoak jartzea desadostasunak inoiz gehiago bihur ez daitezen gatazka suntsitzaile eta bakartasun kroniko.

1.2. Konponbide-garaiari legezkiokkeen prozesuak

Helburu bakoitzak bere prozesua eskatzen du, finean denak denen osagarri badira ere. Horrenbestez, honako prozesu hauek eskatzen ditu konponbideak bilatzeko garai politiko berriak:

a) **Distentsio-prozesua** (baketze-prozesua) **martxan jartzea**.

b) **Adiskidetze-prozesua martxan jartzea** (edo bizikidetasunerako akordio politikoaren prozesua).

c) **Indarkeriak kaltetutakoei dagokien ordaina ematea** (humanizazio-prozesua).

d) **Prebentzio-prozesua martxan jartzea** (bake-kultura bultzatzea).

2. Konponbide-garaiak eskatzen duen metodologia

Atal honetan bi oinarri metodologiko baino ez ditugu aurkeztuko prozesu hauentzako: «zer», eta «nola». «Zer» Helburuak atalari dagokio eta «nola», Garapena atalari.

2.1. Distentsio-prozesua (edo baketze-prozesua)

•Helburuak

·Arrazoi politikoek eragindako indarkeria-mota guztiak behin betiko amaiaraztea, eta giza eskubideak errespetatzea.

•Garapena

Premiazko prozesua dugu hau, sufrimenduaren amaieran eragin zuzena duelako. Ondorengo gaiak landu beharko lituzke:

·Indarkeria mugarik agbe etetea.

·Akordio politiko-instituzionalerako prozesua, giza eskubideekin eta indarkeriarik gabeko etorkizunaren oinarriekin alderdi guztien konpromisoa jasoko lukeen adierazpen bat prestatzeko.

·Era berean, preso eta erbesteratuei buruzko batzorde bat ere eratu behar litzateke.

2.2. Adiskidetze-prozesua martxan jartzea (edo bizikidetasunerako akordio politikoaren prozesua)

•Helburuak

·Gizalegezko bizikidetasunerako behar diren adostasun politikoak lortzea, hots, bakean, askatasunean, berdintasun demokratikoan eta pluralismoa errespetatuz bizitzeko behar diren adostasunak.

•Garapena

·Lehentasuna du prozesu politiko honek. Bitan banatuko litzateke, eta biak aldi berean garatuko lirateke:

- alderdi politikoaren arteko akordio-prozesua, gure bizikidetasun politikoa normalizatzeko behar diren gaiei buruzkoa. Konpontzeko dauden auzi politikoak gainditzeko behar diren printzipioak eta konpromisoak izan behar ditu oinarri. (giza eskubideak eta oinarri demokratikoak errespetatzea, aukera politiko guztiak aintzat hartzea, pluralismoa eta herri-borondatea errespetatzea, etabar)
- bizikidetasun-esparruei buruzko akordio parlamentarioa. Ordenamendu juridiko-politikoari buruzko proiektu eta proposamenak izan behar ditu eztabaidagai aipatu akordioak.

2.3. Ordaintza-prozesua (edo humanizazio-prozesua)

•Helburuak

·Indarkeriak eragindako kalteak eta sufrimenduak konpontzea eta haien ordaina ematea kaltetuei, ahal den neurrian.

•Garapena

·Ezinbestekoa dugu prozesu hori gatazkari konponbiderik eman nahi bazaio. Hainbat fase elkarlotu behar lituzke prozesuak eta honela moduzko garapenari ekin:

- indarkeriaren biktimei eta hark eragindako era guztietako kalteak identifikatzea, inongo biktima-talderik ordainik jaso gabe ez geratzeko.
- kode etikoa bat eratzea biktimekiko elkartasuna gauzatzeko.
- jasandako sufrimendua aintzatestea, neurri eta ekintza jakin batzuen bidez azaltzeko biktimei gizartearen elkartasuna eta berotasuna.
- konpon eta ordain daitekeen guztia konpontzea eta ordaintzea biktimei, gaindi ahal dezaten biktima-izaera.
- iraganaren berrikuspen kritikoa eta autokritikoa, orainari eta geroari gizalegez ekiteko.

2.4. Prebentzio-prozesua martxan jartzea (bake-kultura bultzatzea)

•Helburuak

·Bitartekoak jartzea desadostasunak inoiz gehiago bihur ez daitezen gatazka suntsitzailerik.

•Garapena

·Prozesu hau ez da premia-premiazkoa, baina bai konponbide-garai honetan bete beharreko baldintza, konponbideak gauzatzea nahi bada behintzat. Prozesu horretan adostu behar dira etorkizunean gatazka politikoak gatazka suntsitzaile eta indarkeriazkoak ez bihurtzeko hartu beharreko neurriak, kontuan harturik, betiere, dagoeneko indarrean edo bidean diren neurriak.


·Prozesu hau garatzeko, etorkizuneko testuinguruak zehazteko metodologia erabil daiteke. Etorkizuneko adostasun-testuinguruak zehaztean legoke gakoa, haiek adostu ondoren ondorio baliagarri eta praktikoak atera ahal daitezen oraingo egoerarako eta etorkizun hurbilerako. Hau da eztabaida honek jorratuko duen prozesua, eta aurretik deskribatutako prozesuak jorratuko ditu.

2.5. Beste prozesu batzuk

·Beste prozesu batzuk ere sor daitezke konponbide-garai honetan, aipatu ditugun lau horietatik ezberdinak. Honako hauek, adibidez: gobernagarritasuna bermatzeko hitzarmen-prozesuak, eraikuntza nazionalerako lankidetzaren prozesuak, estatu-eredu jakin baten alde egiteko aliantzak... Printzipioz, guztiak lirateke zilegiak. Dena dela, kontuan izan behar lirateke bi irizpide hauek:

- prozesu batzuk eta besteak elkarrekin ez nahastea, edo elkarri baldintzarik ez jartzea.
- aintzat hartzea prozesuetan adosten diren arauak eta konpromisoak.

Konponbide-garaiak eskatzen duen egituraren eta metodologiaren koadro-laburpena



Bigarren zatia. Etorkizuneko eszenategien inguruko gizarte eztabaidaren metodologia

0. Aurkezpena

Aurreko atalean, gizarte eztabaidaren oinarrizko txostenak konponbide-garai bati eusteko metodologia bat aurkeztu du. Agiri honen aurkezpenean azaldu den modura, une hauetan akordioetara iritsi ahal izateko zailtasun garrantzitsuak daude, zabalik dauden aukerak mahai gainean egonagatik ere. Bizikidetasun arazo larriak konpontzeko akordio eta adostasunak aurkitzeko esfortzu eta eginahal guztiek gainditzeko zailak diren desadostasunekin topo egiten dute.

Etorkizuneko eszenategien inguruko gizarte eztabaidaren proposamenak ekimen berritzailea da gure inguruan eta akordioak lortzeko ahalegin horretan aldaketa suposatzen du, hurrengo irizpideak aintzat hartzen dituelarik:

1- Konponbide-garai batean arau-jokoak eta guztion onespina duen metodologiarik ez egotea da, ziurretik, konponbide-garai honi eusteko unean dagoen zailtasunik handiena. Hau da, akordioak bilatzeko prozesu bati begira zein bide edota estrategia jarraitu behar den horretan zentratuta egotea desadostasunak.

2- Zilegi da helburuak partekatzea, konponbide-garai baten emaitzak partekatzea. Hau da, gure gizartearen etorkizunean bizikidetasunari begira akordio zabala eta anitzeko eremu bat egotea zilegizkoa da.

3- Partekatu dezakegun emaitza zertan den atzematen baldin bada errazagoa izango da emaitza hauek lortu ahal izateko eman behar ditugun urratsen inguruan akordioak lortzea eta ondorio baliagarriak ateratzea orain ere aurrera egiteko.

Premisa hauek abiapuntu modura hartuz, etorkizuneko eszenategien inguruan gizartearen eztabaidaren xedea konponbide-garai baten emaitzei begira akordioen inguruan hausnartzea da, bide batez, gainera, proposamen zehatzen zerrenda bat egiteko zeintzuk lagunduko diguten aukera-garai honek dituen zailtasunak gainditzeko.

Beste aldetik, etorkizuneko eszenategien inguruan gizarte eztabaida honek espazio zabala izan nahi du non irudimenezko esfortzu honetan parte hartu nahi duten pertsona guztiei aukera desberdinak emango zaizkien bertan jarduteko. Elkarrik hiru ekimen desberdin aurrera eramango ditu eta bakoitza gizartearen eremu jakin batera bideratuko da, honetarako elkarriketa eta parte-hartze metodologia desberdinak baliatuko direlarik: 1) etorkizuneko eszenategien inguruan ikerketa mintegi bat, 2) herrietako parte-hartze taldeak gizartearen eztabaidan, eta 3) parte-hartze koadernoak gizartearen eztabaidan.

1. Etorkizuneko eszenategien inguruko ikerketa mintegia

1.1. Helburuak

1.1.1. Helburu nagusiak

- Eremu desberdineko pertsonen artean eta kultur, ekonomia edota unibertsitate arloetan onespina dutenen artean komunikazio sare bat eratu.

- Konponbide-garai bati begira, etorkizuneko eszenategien inguruan hausnarketa sustatu.

1.1.2. Helburu zehatzak

- Hausnarketa prozesu honetan agertuko diren etorkizuneko eszenategi guztiekin argitalpen bat moldatu.

- Alderdi politikoen arteko elkarriketaren osagarri izango den txosten bat prestatu non ondorio praktikoak bilduko diren.

1.2. Mintegi honen parte-hartzaileak

Mintegi honetan iritzia bideratzen duten 25 pertsonek parte hartuko dute. Talde hau anitza izango da eta gure gizartean dauden eremu politiko guztien isla izango da.

Bestetik, mintegi honetan parte hartuko duten pertsonak euren lan eremuetan izen handia dutenak izango dira.

Bakoitzak bere kasa parte hartuko du.

1.3. Funtzionamendua

1.3.1. Lan-taldeak

Parte-hartzaileak hiru lan taldetan banatuko dira. Talde hauek konponbide-garai bati begira aurretik azaldu diren hiru prozesuei dagozkie:

- 1- Distentsio-prozesu bat (edota bake-prozesu bat)
- 2- Adiskidetze-prozesu bat (edota bizikidetasunerako akordio politikoen prozesua)
- 3- Ordaintza-prozesu bat (edota humanizazio-prozesu bat)

Oinarrizko txostenean laugarren prozesu bat zehazten zen, prebentzioarena alegia. Aurretik zehaztu ditugun prozesuen ondorioa izan daiteke laugarren hau. Honexegatik, prebentzio-prozesu hau ez da bereziki landuko eztabaida saio honetan.

Bestetik, lan talde berezi bat eratuko da Nafarroan ere konponbide-garai bat garatzeko egon daitezkeen aukerak aztertzeko xedearekin.

1.3.2. Osoko bilerak

Talde bakoitzak burutuko dituen bilerez gain, parte-hartzaile guztiek osoko bilerak egingo dituzte etorkizuneko egoera hauek guztiak partekatze helburuarekin, iradokizunak eta ekarpenak jasotzeko eta eztabaidatutakoaren haritik ondorioak ateratzeko.

2. Herrietako Parte-hartze Taldeak (HPT)

2.1. Helburuak

Herrietako Parte-hartze Taldeen helburu nagusia gizarteari parte hartzeko bide aktiboa eta eraginkorra eskaintzea da, beti ere konponbide-garai bati laguntzeko asmoz.

Talde hauen lanaren emaitza txosten bat izango da non ikuspegi positibo eta negatiboak uztartuz lau eszenategi erakutsiko diren. Halaber, elkarrizketa politikoaren osagarri izango diren proposamen zehatzak agertuko ditu.

2.2. HPTetako parte-hartzaileak

HPT bakoitza 15 eta 20 lagun bitarteko talde batek osatuko du. Talde hauek orekatuak eta anitzak izango dira, bai sexuari, bai adinari, bai ideologiari dagokionean.

HPTetako parte-hartzaileek ez dute inolako ordezkartzarik izango. Euren kasa parte hartuko dute eta tartean alderdi politikoetako, sindikatueta, elkarte desberdinetako kide izango dira, hala nola gizartean izen handia duten herritar zein bizilagun xumeak.

2.3. Funtzionamendua

HPT hauen lana laburbil dezakeen esaldia hurrengoa da: "Etorkizuna bakean irudikatu". Hau da, nola irudikatzen dugun bakea eta bizikidetasuna ezagutuko duen gure gizartearen etorkizuna. Etorkizun honek gure adostasuna lortzen baldin badu, ziurrenik errazagoa izan da orainaldian ere akordioak erdiestea etorkizun honi begira urratsak eman ahal izateko.

Elkarrik 60 Herrietako Parte-hartze Talde inguru osatuko ditu herri eta auzo desberdinetan, hala nola Euskal Herriko unibertsitateetan, 2004 urtearen bukaera baino lehen lau bider bilduko direlarik. Ekimen hau garatu ahal izateko, Elkarrik gizartearen dinamizazioaren arloan lan egiten duen unibertsitateko talde baten laguntza izango du. Talde honek erabiliko den dinamika zehatza gauzatuko du. Gainera, HPTen bilerak dinamizatu, aktak prestatu eta beharrezkoak izango diren txosten guztiak osatuko ditu.

3. Gizartearen parte-hartze koadernoak

3.1. Helburuak

Gizartearen Parte-hartze Koadernoaren helburua konponbide-garai bati begira gizarteari berari bide aktiboa eta eraikitzailea zabaltzea da.

3.2. Hartzaileak

Gizartearen parte-hartze koadernoak hurrengo modutan banatuko da:

-Koaderno honen 175.000 ale Bakesareari banatuko zaizkio, hots, Elkarrik jada zehaztuta duen gizartearen parte-hartzerako sareari, non gizarte mugimendu honen kanpaina desberdinak sustengatu duten pertsonak, hala nola politikaren, udal eremuko, elkarteen, sindikalgintzaren, kulturaren, hezkuntzaren, kirolaren eta enpresa munduko pertsona zein erakundeak aurkitzen diren.

-Elkarriko herriz herriko taldeek 25.000 ale banatuko dituzten xede honekin burutuko dituzten kale-irteeretan. Gainera, nahi duen orok eskuragai izango du koaderno hau.

-Parte-hartze koaderno hau eskuragai egongo da Elkarriren web orrialdean.

3.3. Koaderno honen edukia

Koadernoak gizartearen eztabaida honetan parte hartzeko modu desberdinak eskainiko ditu, behin egungo egoeraren azterketa labur bat egindakoa. Pertsona bakoitzak egokiago iritzi duen parte hartzeko modua aukeratu ahal izango du. Jasoko diren ekarpen guztiekin ondorioen txosten bat moldatuko da eta Elkarrik gizarte mugimendu honek prestatuko dituen eztabaida eremu guztietara helaraziko du, bai gizartean, bai politika eremuan.